

LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

**2018ko URTARRILAREN 11an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN
EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2018ko urtarrilaren 11an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, gaueko 20.30 orduetan, Aneli Urbieta Etxeberria Alkate andrearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ZINEGOTZIAK: Gotzon Jauregi Sarasola
Cristian Ivo Sebastian Pizarro Jofre
Ander Leon Nanclares
Angel Serrano Martinez
Aritz Sarria Saraqueta
Felix Joaquin Asensio Robles


Bertan dago, egintzaz fede emateko Ane Gomez Urteaga Idazkari-kontuhartzailea.

...//...

Alkate-lehendakari andreak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten den Udalbatzarretako akta onestu, hala badagokio/ Aprobación, si procede de la siguiente acta Plenaria:**
 - **2017ko abenduaren 14an egindako ohiko bilkura./ Sesión ordinaria de fecha 14 de diciembre de 2017.**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea/ Dación de cuenta de los decretos de Alcaldía.**
- 3. Asteasuko Betani etxebizitza babestuan, denboraldi baterako, A.L. jaunak plaza bat izan dezan eskaera burutzea, hala bada./Solicitud de una plaza temporal en la vivienda protegida Betani de Asteasu, para Don A.L.**
- 4. Larraulgo Udalaren eta A.L. jaunaren arteko akordioa, azken honek Asteasuko Betani etxebizitza babestuko gastuaz arduratzeko, hala bada/ Acuerdo entre el Ayuntamiento de Larraul y Don A.L. para que este último asuma el gasto de la estancia en la vivienda tutelada Betani de Asteasu.**
- 5. Larraulgo Udalak Enplegune 2017 programaren baitan jasotako diru-laguntzarekin liburutegirako teknikari bat kontratatze erabakia berretsi/Ratificación del acuerdo de contratación de un técnico para la biblioteca con la ayuda económica concedida por el programa Enplegune 2017.**
- 6. Fakturak eta ordainketak/ Pagos y facturas.**
- 7. Beste batzuk/Otros.**
- 8. Erregu, galderak eta mozioak/Mociones, ruegos y preguntas.**

...//...



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

LEHENENGO PUNTUA

ONDOREN AIPATZEN DEN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA BADA.

- ▣ 2017 urteko abenduaren 14ko Udalbatzaren ohiko akta. Irakurri ondoren bertaratuak aho batez onesten dute.

BIGARREN PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Alkate andreak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

22/017 Alkatetza Ebazpena, azaroaren 21ekoa, 2017/02 Kreditu aldaketaren espedienteari hasiera ematea, ebazten duena.

23/2017 Alkatetza Ebazpena, abenduaren 20koa, Enplegune 2017 programaren baitan N.U. andrea Liburutegiko Kultur teknikari modura kontratatzea, ebazten duena.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

HIRUGARREN PUNTUA

ASTEASUKO BETANI ETXEBIZITZA BABESTUAN, DENBORALDI BATERAKO, A.L. JAUNAK PLAZA BAT IZAN DEZAN ESKAERA BURUTZEA, HALA BADA


Ikusirik A.L. jauna 2017ko urriaren 10etik Tolosako Asuncion Klinikian ingresatuta dagoela. Gaur egun altablea delarik.

Ikusirik, mendekotasun txostena egin behar zaiola, horretarako ezin duelarik ingresatuta egon.

Ikusirik A.L. jaunaren etxea ez dagoela bere beharrei egokiturik.

Ikusirik, Gizarte langileak, 2017ko abenduaren 11ko dataz eginiko txostenean proposatzen duela, hau da, A.L. jauna Asteasuko Betani etxebizitza babestuan, denboraldi baterako, mendekotasuna eta RAI balorazioren emaitzak jaso bitartean plaza bat izatea.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, honako hau



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Asteasuko Betani etxebizitza babestuan, denboraldi baterako, A.L. jaunak plaza bat izan dezan eskaera egitea.

BIGARRENA: Betani, etxebizitza babestuko egonaldiagatik, Asteasuko Udalari ordaindu behar zaion hileko kostua, 716,58 eurokoa, Larraulgo Udalak ordaintzea. Konpromiso honi aurre egiteko, Larraulgo Udalak VI eta VII eranskinak osatu eta sinatu beharko ditu, horretarako Alkate-Lehendakaria ahalmentzen delarik.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri Asteasuko Udalari ematea.

LAUGARREN PUNTUA

LARRAULGO UDALAREN ETA A.L. JAUNAREN ARTEKO AKORDIOA, AZKEN HONEK ASTEASUKO BETANI ETXEBIZITZA BABESTUKO GASTUAZ ARDURATZEKO, HALA BADA

Ikusirik, Larraulgo Udalak, Asteasuko Udalari, A.L. jauna, denboraldi baterako Asteasuko Betani etxebizitza babestuan egoteko plaza bat izan dezan eskaera egin diola.

Ikusirik, Asteasuko Udalak, Larraulgo Udalari eskatu diola, A.L. jaunak Asteasuko Betani etxebizitza babestuan plaza bat izateko, konpromiso ekonomiko batzuk, hau da, Betani etxebizitza babestua arautzen duen erregelamenduko VI. Eta VII eranskinak onartu eta sinatzea, non Larraulgo Udalaren konpromiso ekonomikoak onartzen diren.

Ikusirik, A.L. jaunari mendekotasun eta RAI baloraziori buruzko txostenak egin bitartean, A.L. bera egingo dela Asteasuko Betani etxebizitza babestuko gastuen kargu. Dagokion diru kopurua, hau da, 716,58 euro hilean, Larraulgo Udalari ordainduko dizkiola.

Ikusirik, goian azalduko konpromisoak exekutatzeko, dagokion dokumentua sinatuko duela A.L. jaunak.


Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Larraulgo udalaren eta A.L. jaunaren arteko akordioa, azken honek, Asteasuko Betani etxebizitza babestuan egingo duen egonaldiaren gastuaz arduratzeko, dagokion konpromiso dokumentua sinatuko duelarik.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari ematea.

BOSTGARREN PUNTUA



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

LARRAULGO UDALAK ENPLEGUNE 2017 PROGRAMAREN BAITAN JASOTAKO DIRU-LAGUNTZAREKIN LIBURUTEGIRAKO TEKNIKARI BAT KONTRATATZEKO ERABAKIA BERRETSI

Ikusirik Larraulgo Udalak enplegune 2017 programaren baitan jasotako diru-laguntzarekin liburutegirako teknikari bat kontratatzeke erabakia hartu zuela, 2017ko abenduaren 20an, 2017/23 alkatetza ebazpen bidez. Aipaturiko Alkatetza ebazpena hitzez hitz jasotzen delarik:

“2017/23 ALKATETZA EBAZPENA

Ikusirik Larraulgo Udalari enplegune 2017 programaren baitan teknikari bat kontratatzeke 12.500€ko diru-laguntza bat eman zaiola.

Ikusirik, Tolosaldeko enplegu planeko diru-laguntzaren babesean Larraulgo udalean liburutegirako teknikari bat kontratatzeke Lanbideek bidalitako hautagaien artean elkarrizketa bat egin zela (akta bat jasota dagoelarik).


Ikusirik 2017ko abenduaren 18an egindako elkarrizketaren emaitza ikusirik, epaimahaiak Larraulgo Alkate Lehendakari andreari proposatu ziola liburutegiko Kultur teknikari modura Edurne Ayuso andrea kontratatzea. Honek ez baluke lanpostua hartuko Nora Urbizu andrea kontratatzeke aukera egongo da, bigarren postuan gelditu baita.

Ikusirik, Edurne Ayuso andreak uko egin diola, Larraulgo Udalak eskainitako lanpostuari.

Ikusirik, Nora Urbizu andreak onartu egin duela, Larraulgo Udaletxeak eskainitako lanpostua, liburutegiko teknikaria, sei hilabetez, lanaldi osora.

Ikusirik, Berastegiko udalak interesa azaldu duela, %20 lanaldi batez, Larraulgo Udalak kontratatuko duen langilea partekatzeke.

Apirilaren 2ko 7/1985 ELO Lege Arautzaileak eta apirilaren 18ko 781/1986 E.D. Legegileak xedatzen dituen eskuduntzak aintzakotzat hartuz.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

EBAZTEN DUT:

LEHENA: Enplegune 2017 programaren baitan Nora Urbizu andrea Liburutegiko Kultur teknikari modura kontratatzea, sei hilabetez, lanaldi osora. Larraulgo Liburutegia txukundu eta liburuak katalogatzeko eta herri mailan, kultura eta kirola dinamizatzeko. Kontratua 2017ko abenduaren 29ko datarekin egingo delarik.

BIGARRENA: Berastegiko udalarekin Nora Urbizu andrearen lanaldia partekatzeko onespina ematea, % 20ko lanaldia Berastegiko udalean burutuko duelarik. Horretarako Larraulgo udalaren eta Berastegiko udalaren artean hitzarmen bat sinatuko da.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri interesatuei ematea.

LAUGARRENA: Ebazpen honen berri hurrengo Udal Osoko Bilkura arruntean ematea.”

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa


ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- 2017abenduaren 20ko 23/2017 Alkate Ebazpenean jasotakoa berretsi.

SEIGARREN PUNTUA **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Alkate-Lehendakari andreak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

BERRI LANTEGIA	77,60
ULAHI	392,98
GIPUZKOAKO URAK	4.170,98
GIPUZKOAKO URAK	408,30
AMAZON	259,98
TXERTOTA	333,41
TOLOSAKO UDALA	137,00
COMERCIAL BULEGOAK	33,53
TOLOSAKO UDALA, KILOMETRAJEAK	38,28
GARAJE EKIN	121,22
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	19,84
EBA ERKIZIA	466,01



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

SANDRA GAVARRO	219,00
TOLOMENDI	152,50
BERRI LANTEGIA	12,11
KIROLZER	57,30
FERRETERIA BARBE	86,21
GIPUZKOAKO URAK	4.236,88
AUTOCARES URPA	470,00
TOLOSAKO UDALA, KILOMETRAJEAK	61,20
TOLOSAKO UDALA, KILOMETRAJEAK	37,70
TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	834,79
IZFE	1.950,23
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	405,94
NATURGAS	139,44
NATURGAS	392,56
IBERDROLA	175,15
IBERDROLA	257,94
IBERDROLA	83,01
IBERDROLA	36,74
IBERDROLA	144,27
MOVISTAR	67,66
MOVISTAR	131,73
MOVISTAR	18,38

Udalbatzarrak **ahoko** batez hurrengo,
ERABAKITZEN DU


BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **16.429,87** eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

ZAZPIGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**

7.1. HERRI OSTATUAREN ZERBITZU PUBLIKOAREN KUDEAKETA KONTRATATZEKO LEHIAKETA ARAUTUKO DUTEN BALDINTZA EKONOMIKO ADMINISTRATIBOEN PLEGUA ONESTEA ETA LIZITAZIOARI HASIERA EMATEA, HALA BADA

Ikusirik datorren 2018ko martxoaren 25ean, gaur egun Larraulgo herri ostatuaren errentamendu eta ustiapena eramaten duenak zerbitzua utzi egin behar duela.

Ikusirik, Larraulgo Udalak, prestatu dituela Larraulgo Herri ostatuaren errentamendu eta ustiapena, lehiaketa ireki bidez esleitzeko, ekonomiko eta administratibo baldintzen plegua.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik espediente osoa Udalbatzarraren ezagupenean jarri dela.

Gaia azterturik bertaratuek aho batez ondorengoa,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Larraulgo Herri Ostatuaren errentamendu eta ustiapena, lehiaketa ireki bidez esleitzeko, ekonomiko eta administratibo baldintzen pleguaren onarpena ematea.

BIGARRENA: Larraulgo Herri Ostatuaren errentamendu eta ustiapena, lehiaketa ireki bidez esleitzeko lehiaketa irekirako deialdiaren onespena.

HIRUGARRENA: Larraulgo herri Ostatuaren errentamendu eta ustiapena, lehiaketa ireki bidez esleitzeko, ekonomiko eta administratibo baldintzen pleguaren onespena, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean zortzi eguneko epean, publikoan jartzea, interesatuek aztertu, eta behar bada, egoki deritzoten erreklamazioak aurkez ditzaten.

LAUGARRENA: Larraulgo Herri Ostatuaren errentamendu eta ustiapena, lehiaketa ireki bidez esleitzeko lehiaketa irekirako deialdiaren onespena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta web orrian argitaratzea, interesatuek hogeit eguneko epean euren proposamenak aurkeztu ditzaten.

ZORTZIGARREN PUNTUA

ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK

Ez dira aurkezten.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko 21.00 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA